

AIARALDEA hemen



EKIÑE LOPEZ:
"Ez dakit zer den, baina aizkorak atrapatu egiten zaitu" 12-13 or.

AIARALDEA JAIETAN:
San Joan Astobitza, Sanpedropeko, Zalao, Uribarri, Delika, Arakaldo, Luiaondo, Areta eta Ugarteko jaiei buruzko gehigarri berezia



BADUGU IRITZIRIK

APDEMAKO EZTABAIDA TALDEA



URDUÑA 5
Urduñako Herri Eskolako jantoki eredu arriskuan dagoela salatu dute
Legebiltzarrean jasotakoan oinarrituta adierazi du kezka Guraso Elkarteak

OKONDO 6
Sinadura bilketa abiatu dute, Aldundiak A-3641 errepidea konpondu dezan
Etxaurren Ikastolako autobusa izan da errepidean istripua izan duen azken ibilgailua

KULTURA 8-9
Inti Raymiaren ospakizunak ehunka lagun elkartu ditu Urduñan
Urduñako komunitate ekuadortarrak festa erraldoi batekin ospatu du udako solstizioa

KIROLA 14
Naia Landaluzek 2028ra arte luzatu du kontratua Athleticekin
Ehun partida baino gehiago jokatu ditu dagoeneko klubarekin, eta beste bi denboraldiz egongo da bertan

Ikasturte osoa:
Hilean 52€-tik aurrera



Idiomas

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA

50 urtetik gorako esperientzia
Cambridgeko azterketak prestatzeko zentroa

fundacionidiomas.eus · Herriko Plaza, 8 · 946 572 938

Erreportajea



“JENDE ASKOK PENTSATZEN DU DESGAITASUN INTELEKTUALA DUGUN PERTSONOK EZ DUGULA EZER INTERESGARRIRIK ESATEKO, BAINA AGIAN EZ DIRA INOIZ GU ENTZUTERA GERATU”

ITXASO SOLAGUREN SALAZAR (Laudio, 1998) ETA **JULENE RODRIGUEZ GONZALEZ** (Laudio, 2004) APDEMAKO EZTABAIDA TALDEKO KIDEAK DIRA ETA MADRILEN JOKATUTAKO *YO TENGO OPINIÓN* EZTABAIDA LIGAN PARTE HARTU DUTE ASTEBURUAN. HIRUGARREN POSTUAREKIN ETA MALETA BETE IRAKASPENEKIN ITZULI DIRA ETXERA.



Testua **Maider Ramirez Martin**
Argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Emozioa oraindik gorputzean bizi-bizi dutela elkartu gara Itxaso Solaguren eta Julene Rodriguezekin. June, Ieri, Willy, Anne, Victor eta Irunerekin batera, Euskal Autonomia Erkidego-ko desgaitasun intelektuala duten pertsonen osatutako lehenbiziko eztabaida taldeko partaideak dira eta Madrilerara bidaiatu dute asteburuan, bertan jokatu baita *Yo tengo opinión* liga.

Aintzindariak dira zortzi lagunak Apdemak koordinatutako proiektuan eta harro sentitzen dira horregatik Solaguren eta Rodriguez. Arabako elkar-teak desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat partaidetzarako, autonomiarako eta ahaldu-terako espazio erreala sortzea du xedeetako bat, eta hori dela eta batu zen erronka honetara: “Kontua ez da lehiatzea bakarrik, baizik eta erakustea haiek ere badutela iritzia, kriterioa eta esateko dutena adierazteko eskubidea eta gaitasuna”.

Aintzindariak ere *Yo tengo opi-*

nión liga, gisa honetako lehenbiziko txapelketa baita munduan. Aurtengo edizioan, Espainiako Estatuko hamairu taldek parte hartu dute eta Nebrija Unibertsitatean egin dituzte debeteak. Leduk, Espainiako Unibertsitate mailako Eztabaida Ligak, antolatu du ekimena, kolektibo honetako pertsonen ahotsa entzunarazteko helburu nagusiarekin, “gizartearen aurrerabide bateratua” sustatzeko bidean.

Hilabeteetako lana

Hirugarren sailkatu da ligan Apdemaren taldea, hilabete-

tan zehar egindako lan handiaren emaitza. Izan ere, otsailetik daramatzate eztabaida on bat egiteko gako guztiak prestatzen: debatearen egitura, oratoria, ez-hitzezko lengoia... Horiek kontuan hartuta, txapelketan landu beharreko gaia prestatu dute entrenamenduetan: “Birziklatzea sustatzeko hobe da saritzea ala zigortzea?”. Saritzearen aldeko postura hartzea egokitu zaie haiei eta horretarako argudioak prestatu dituzte.

Prozesu horretan bidelagun izan dituzte Adrian Fernandez eta Brais Freire mentoreak, eta

Ainara Urresti eta Rodrigo Gonzalez Apdemako hezitzaileak. Haien lana aitortu eta eskertu nahi izan dute Solaguren eta Rodriguezek.

Rodriguezek, zehazki, azaldu du prestakuntzarekin hasi zirenetik orain arte egindako garapena, hein batean, haiei esker izan dela: “Lehenengo egunean zuzenean atera ginen arbelera guztion aurrean hitz egitera eta niri asko kostatu zitzaidan. Askok frustratzen nintzen horregatik eta haiek hori kudeatzen irakatsi didate. Oraindik asko daukat ikasteko, baina badakit frustra-

zioa datorrenean horri aurre egin behar diodala eta amorerik ez eman”.

Txapelketarako beharrezkoak ziren jakintzak lortzeaz gain, esperientzia honi esker beren eguneroko bizitzarako eta garapenerako tresnak ere eskuratu dituzte: taldean harremantzen eta elkarri babesten ikasi dutela aitortu dute gazteek.

Zeledonon jaitsiera, balkoitik

Madrilera abiatu aurretik, Maider Etxebarria Gasteizko alkateak hartu zituen Gasteizko Udaletxean. Animo hitzak helarazi zizkien bertan eta proposamen bat egin zioten Apdemako lagunek: lehiaketa irabaziz gero, Gasteizko jaien txupinazoan, San Migel elizako balkoitik ikusi ahal izatea Zeledonon jaitsiera. Txapelketan lan guztiak eginda zituztela, ezusteko bideodei bat jaso zuten eztabaida taldeko partaideek. Etxebarria zegoen pantailaren beste aldean, eztabaidalari arabarrak egindako lanagatik zoriondu nahi zituen.

Txapelketarako jakintzez gain, esperientzia honi esker beren eguneroko bizitzarako eta garapenerako tresnak ere eskuratu dituzte: **taldean harremantzea eta elkarri babestea, besteak beste**

Merezitako hirugarren postua lortu izanagatik, abuztuaren 4an balkoian egoteko promesa egin zien alkateak eta pozik eta hunkituta ospatu zuten gazteek albisteak.

Ospakizunekin jarraitu zuten ostean. Izan ere, ligako gaitzako taldeekin elkartu eta pizza-jai batekin eman zioten amaiera esperientziari. Beste lurralde batzuetako jendearekin harremantzeko aukera izan zuten arabarrek bertan, eta eztabaidan aritzearekin batera, bidaia alderdirik onenetako bat izan da hori gazteentzat.

Ahotsa izatearen garrantzia

Madrilen bizitako esperientziagatik galdetuta, bereziki urduri eta nekatuta egon zirela kontatu dute bi laudioarrek, baina baita gogotsu eta ilusionatuta ere. Finalera heldu ez izanaren arantzaxoa geratu zaie, baina lasai daude haien onena eman dutelako. Ikasturte berriarekin batera berrartuko dituzte presetakuntzak, oso gogotsu baitaude

Merezitako hirugarren postua lortu izanagatik, abuztuaren 4an San Migel elizako balkoitik ikusiko dute Zeledonon jaitsiera

deskubritu berri duten oratoriarren eta eztabaidaren bidea urratzen jarraitzeko.

35 urte izan arte parte hartu ahal izango dute taldean, gazteei baitago bideratuta. Solagurenek argi du, ordea, behin adin hori gaitzuta eztabaidaligaren munduan jarraituko duela, formatzailea eta epailea izan nahi baitu.

“Badugu iritzirik” dio txapelketaren leloak, eta mezu hori azpimarratu nahi izan dute bi gazteek: “Jende askok pentsatzen du desgaitasun intelektuala dugun pertsonok ez dugula ezer interesgarrikerik esateko, baina agian ez dira inoiz gu entzutera geratu. Ezberdinak gara, bai, guztiok garela ezberdinak, eta agian behar berezi batzuk ditugu, baina gauza asko egiteko kapazak ere bagara”.

Bide horretan lanean jarraituko dute bai Apdemak, kolektiboki, eta baita Solaguren eta Rodriguezek pertsonalki ere, haien ahotsa entzuna eta haien hitza errespetatua izan dadin.



SAN JOAN ASTOBITZAKO JAIK 2026


Ekainak 20 LARUNBATA

09:00 Bola Txapelketa
13:00 Musika bandaren igoera
18:00 XVII. San Joan Krosa
22:30 Kontzertuak



Ekainak 21 IGANDEA

12:30 Euskal Dantzak [Itxarkundia Dantza Taldea]
13:00 Herri kirolen erakustaldia Urtza HKT



Ekainak 23 ASTEARTEA

18:00 Haurrentzako jolasak [Kirikiño Aisialdi Taldea]
19:00 Buruhandiak [Galtzagorri K.T.]
22:00 Suaren piztea + Txokolatada Dantza emanaldia [Akelarre D.T.]
Kontzertua

ERROTIK



Argazki erreportajea

ARABA EUSKARAZ JAIA OSPATU ZUTEN AMURRION, ARESKETA IKASTOLA HAUSPOTU ETA "EUSKARAREN ALDEKO BIHOTZ TAUPADAK" BERPIZTEKO ASMOZ. EGURALDIA LAGUN, MILAKA LAGUN ELKARTU ZIREN HERRIAN ATONDUTAKO HIRU JAI-GUNE NAGUSIETAN.

Milaka lagun Amurrion, euskararen taupadak berpizteko prest



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Oraingoan bai. Araba Euskaraz jaiak Amurrioko kaleak hartu ditu. Euskal Herriko hamaika txokotatik etorritako milaka lagun elkartu ziren Arabako Ikastolen aldeko jai erraldoira. Iragan ekainaren 14an makina bat ekintza

antolatu zituen Aresketa Ikastolako hezkuntza komunitateak, Amurrioko hiru gune nagusitan banatuta.

Aresketa Ikastolako harrera ekitaldian eman zioten hasiera jaiari, gizarte eragileetako eta administrazioetako dozenaka ordezkariaren aurrean. Arabako Ikastolen papera goraiatu zuten,

"Araba euskaratik eta euskaraz josteko egunero egiten duten lanagatik". Araba alderik alde zeharkatzen duen hari horren erakusle, Argantzungo Ikastolak jaso zuen datorren urteko Araba Euskaraz jaia antolatzeko lekukoa, non eta Trebiñun, "euskara oraindik ere ofiziala ez den Arabako lurraldean".



Urduña

Urduña Herri Eskolako jantoki eredua arriskuan dagoela salatu du Guraso Elkarteak



2017an mobilizazioak egin zituzten Urduñan jantoki eredu agroekologikoaren alde. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urduña Herri Eskolako Guraso Elkarteak adierazi dio Aiaraldea Komunikabideari 2018an abian jarritako jantoki eredua kendu nahi duela Eusko Jaurlaritzak. Berez, hiriko ikastetxeko hezkuntza komunitatea Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean egon zen atzo eta hori izan da eztabaidak utzi duen ondorioa, euren ustez.

Azaldu bezala, Herri Eskolako hezkuntza komunitateak 2005etik aurrera egindako lana aldarrikatu zuen atzo Eusko Legebiltzarrean eta egungo ziurgabetasunari aurre egiteko neurriak eskatu zituen. Izan ere, 2018tik proiektu pilotu gisa ari da lanean.

PPk, PSE-EEk eta EH Bilduk eskolako eragileek eta Udalak egindako lana aitortu zuten eta horren alde egiteko prestutasuna adierazi zuten, baita EAJk ere, baina Alazne Arana ordezkari jeltzaleak aurreratutako etorkizunean (duela urtebete Hezkuntza Sailburuak iragarritako sukaldia eraikitzen denean) kudeaketa eredua aldatuko dutela. Hain zuzen, legebiltzarkideak erabili zituzten hitzak izan ziren "sukalde propio in situ eta bertikala" ezarriko dutela.

Aranak argudiatu zuen modu horretan integratuko dutela proiektua Eusko Jaurlaritzako parametroetan, egonkortasun juridikoa bermatuko dutela eta beste hiru irizpide ere beteko dituztela: "Ikastetxe guztientzako ekitatea, finantza jasangarritasuna eta segurtasun juridikoa".

Halaber, jeltzaleak azpimarratu zuen modu horretan Guraso Elkarteari duen lan zama kenduko diotela gaineratik.

Eba Colomino Guraso Elkarte-kideak Legebiltzarrean bertan erantzun zion Alazne Aranari eta aitortu zion Eusko Jaurlaritzak urratsak eman dituela Urduña Herri Eskolak baliatzen dituen irizpideen bidean (tokiko ekoizpena, agroekologia, gertuko hornitzaileak...), baina Gobernuak lizitazioan enpresei jarri dizkien pleguak oraindik oso urrun daudela euren praktikatik.

Eztabaida garrantza

Colominok erantzun baino lehen, dena den, iritzi trukaketak norabide ezatsegina hartu zuen. Hain zuzen, Alazne Aranak leporatu zion Urduña Herri Eskolari EH Bilduren gidoi politikoa jarraitzea eta ikastetxearen izen ona arriskuan jartzea. "EH Bilduk titular bat baino ez dizue emango eta Eusko Jaurla-

ritzak sukaldia jarriko dizue", esan zuen legebiltzarkideak.

Eunate Arbizu zuzendariak hitza hartu zuen orduan argitzeko hezkuntza komunitateak ez zuela inolako gogorik mozioa aurkezteko edo Eusko Legebiltzarrerara joateko, baina Sailak ez dituen euren galderak erantzuten eta komunikazio eta informazio falta handia dutenez, bide hori hartu behar izan dutela erantzunak lortzeko.

Halaber, zuzendariak nabarmendu zuen Begoña Pedrosa Hezkuntza Sailburuak iragarri zuenean sukalde berria eraikiko zutela, eskolan inork ez zekiela ezer: "Eskertuko genukeen bilera bat aurretik izatea informazio hori jasotzeko".

Borroka zikloa

Gauzak horrela, aurreikuspen arabera, 2027-2028 ikasturtean indarrean egongo litzateke kudeaketa eredu berria. Horren aurrean, Guraso Elkarteak aipatu dio Aiaraldea Komunikabideari aldarrikapen eta mobilizazio zikloa abiatuko dutela irailtik aurrera, egungo jantoki ereduaren ezaugarriak bermatzen ez badira. Egoera hori ez da ezezaguna urduñarrentzat, protesta ugari antolatu baitzituzten bere garaian, egungo eredua eskuratzeko.

Amurrio

"Erantzun kolektiboak artikulatzeko prest" azaldu da Amurrioko mugimendu feminista

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Dozenaka lagun bildu ziren iragan ekainaren 5ean Amurrioko Emakumeon* Sareak deitutako elkarretaratzean. Bi emakume herriko kaleetan jazarriak izan direla salatu zuten bertan. Indarkeria matxistak bizitzak baldintzatzen dituela gogorarazi zuten protestan. Horren aurrean, "aske bizitzeko eskubidea" aldarrikatu zuten, "zapalkuntza patriarkalek kanpoko bizitza bizigarriak" nahi dituztela nabarmenduta. Horrez gain, ohararazi zuten indarkeria matxistak "hamaika aurpegi" dituela: "indarkeria matxista da emakumeon* diru iturriak kontrolatzea, indarkeria ma-

txista da kaletik begiradarekin akosatzea, indarkeria matxista da eraso bat salatzen dugun bakoitzeko gure hitza zalantzan jartzea, indarkeria matxista da gizonen arteko aliantzak eraikitzen eta sostengatzen jarraitzea eta hartu beharreko arduari entzungor egitea".

"Egungo instituzioen pasibotasuna" eta "jendartearen konplizitatea" ere jarri zituzten jo-puntuan, erasoek jarraitzearen eragileak direla argudiatuta. Horregatik, beste behin eskatu zuten indarkeria matxista "lehen mailako arazo sozial eta politikotzat" hartua izatea.

Bukatzeko, "autodefentsa feministarako deia" ere zabaldu zuten, "erantzun kolektiboak artikulatzeko prest" daudela gaineratuta.

OROZKO 2026 SANJUANAK

EKAINAK 19

17:30 ESKU PILOTA FINALAK
Olgetan euskal pilota

21:00 DANTZA EMANALDIA Plazan
Ubixeta dantza taldea

EKAINAK 20

18:00 ESKU PILOTA FINALAK

20:00 KONTZERTUA "NOCHE DE ÓPERA Y ZARZUELA" Elizan
Agate Deuna Abesbatza

EKAINAK 21

13:00 BERTSO POTEOA: Aitor

• Etxebarriazarraga Gabiola eta Txaber
Altube Sarrionandia

EKAINAK 23

19:30 "HEUK ESAN" ERROMERIA

22:30 IKUSKIZUN
PIROMUSIKALA ETA
PIRULO ERREKETA



Herriz herri

Laudio

Tren zerbitzu "moderno, seguru, irisgarri eta duina" eskatu dute EH Bilduko hautetsiek

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Agerraldi bateratua egin zuten ekainaren 15ean EH Bilduk C-3 lineako udalerrietan dituen alkateek eta hainbat zinegotzik Laudioko tren geltokian. Zerbitzu "moderno, seguru, irisgarri eta duina" eskatu zuten, horri begirako "dinamika instituzional eta soziala" iragartzearekin batera. Ainize Gastakak eta Maite Ibarrek hartu zuten hitza. Laudio eta Arrigorriagako alkateek hainbat eskakizun zehatz jarri

zituzten mahai gainean: "Tren puntualak eta fidagarriak bermatzea, Gau Jaia zerbitzua berreskuratzea eta asteburu guztietara zabaltzea, geltoki eta tren guztietan irisgarritasun unibertsala bermatzea, azpiegituretan inbertsio sendoa egitea, tren moderno eta erosoak martxan jartzea, trenetan eta geltokietan komunak jartzea, Basauri, Laudio eta Luiandoko geralekuetako segurtasun-arazoak konpontzea eta zarataren aurkako neurriak ezartzea trenbidearen ondoko auzoetan". Nabarmendu zuten

garraio publiko duina "herritarren eskubidea" dela, eta nabarmendu dute C3 ez dela "tren linea soil" bat, oinarrizko azpiegitureta bat baizik, "milaka pertsonak lan egiteko, ikasteko, osasun zerbitzuetara joateko edo aisialdiaz gozatzeko erabiltzen dutena". Gauzak hala, EH Bilduko kideek dinamika bat jarriko dute martxan hemendik aurrera, "egoera salatzeko eta hobekuntzak eskatzeko". Izan ere, euren iritziz, "gizartearen eta erakundearen presioaren bidez" iritsiko dira aldaketak.

Okondo

Okondoko familiek sinadura bilketa abiatu dute, Arabako Foru Aldundiak A-3641 errepidea konpondu dezan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Okondoko familiek sinadura bilketa hasi dute, Arabako Foru Aldundiari konponbideak exijitzeko A-3641 errepidean. Bide horretan ezbeharrak biderkatu dira azken urteetan (Eusko Jaurlaritzaren arabera hamar gertatzen dira urtero) eta istripua izan zuen azken ibilgailua Etxaurren Ikastolako autobusa izan zen, hain zuzen, iragan ekainaren 10ean.

Gauzak horrela, Okondoko guraso askok honako aldarrikapen hauek adierazi dizkiote Arabako Foru Aldundiari, premiazko esku-hartzea egin dezan: Eragindako tartearen egoera eta arriskugarritasuna teknikoki ebaluatzea; seinaleztapen horizontala eta bertikala hobetzea; ordu-tegi jakin batzuetan ibilgailu astunen abiadura mugatzeko edo ibilgailu astunen zirkulazioa murrizteko aukera aztertzea; eta, azkenik, galtzada modu eraginkorrean zabaltzea edo ahal den guztietan bazterbide seguruak prestatzea.

Sinadurak

Okondoarren eskaerarekin bat egin nahi dutenek hainbat aukera dituzte. Alde batetik, Internet bidez sinatu dezakete. Bestetik, herrian dauden tabernetan, supermerkatuan eta farmazian ere egin daiteke eta, azkenik, ekital-

di jendetsuetan ere egongo dira. Esaterako, ekainaren 14an Araba Euskaraz jaian egon ziren.

Aiaraldea Komunikabidea familiekin jarri da harremanetan eta hauek adierazi diote eurek eskatzen dutena ez dela A-3641ko ibilbide osoa zabalagoa izatea, baserri ugari baitaude ertzeetan. "Leku puntual eta kritikiko batzuetan ezinbestekoa da bide ertze duinak eta seguruak egitea, eta, ondorioz, zabaltzea, baina beselako neurriak ere hartu behar dira, ez errepidearen zabaltze hutsa. Izan ere, horrek abiadura eta garraio astun gehiago ekarriko balu, ez genuke ezer konponduko", azaldu dute.

Gurasoek uste dute ikuspegi anitzak baliatu behar direla arazoari aurre egiteko. "Garraio astuna ezin da guztiz kendu, mendi-tatik egurra ustiatzen baitute, baina abidura kontrolatu eta garraio astuna mugatu daiteke. Horrez gain, Bizkaiko errepideetan ordain-saria jarri zutenetik, kamioi ugari sartzen dira A-3641an gastu hori ekiditeko. Agian laguntza fiskala eman ahal zaie hemendik ez igartzeko", iradoki dute.

Familiek aipatu dute, edonola ere, ikerketa teknikoak behar dela ezartzeko zein den konponbidea eta premiazkoa dela ahalik eta lasterren egitea. Momentuz, ez dute zehaztu noiz emango dizkieten sinadurak Aldundiari.

AZOKA PLAZAREN IREKIERA

EKAINAK 25, OSTEKUNA

12:00 Inaugurazio instituzionala

18:00 Jakoba Errekondorekin solasaldia

19:30 Gau Argi taldearen emanaldia

Asteburuan ere ekimen ezberdinak egingo ditu udalak plazari bizitza emateko.

EKAINAK 26, OSTIRALA

19:30-21:30 Herriko Plazan

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore

EKAINAK 27, LARUNBATA

12:00 Show cooking saioa Azoka Plazan

EKAINAK 28, IGANDEA

10:00 Laudio Bidelagun: Apdema elkartearekin batera

19:00 San Roke Musika elkartearen kontzertua



LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO



ALMACEN
PINTURAS
REGUERA

Dekoraziorako margoa
Makinaria
Pintura industrial
Lan-tresnak
Paper margotua

www.pinturasreguera.com

%40
deskontua
15 litroko
pintura txurian

94 672 82 74
Zumalakarregi
19, behea

LAUDIO

Gardeako
industriagunea 4
94 672 81 22

Aiaraldea

Aiaraldea "oldartzeko prest" dagoela aldarrikatu dute Iruñeko Euskaltzaleon Martxan

Aiaraldearren pankarta Iruñeko Gaztelu Plazan. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aiaraldea "oldartzeko prest" dagoela aldarrikatu zuten ekainaren 14an Iruñean eginitako Euskaltzaleon Martxan. Autobusa antolatu zen eskualdetik Euskalgintza Kontseiluak deitutako mobilizaziora joateko, eta bertan joan ziren bizilagunek pankarta propioa eraman zuten, "Aiaraldea oldartzeko prest! Euskaltzaleak, esnatu ala hil" lemarekin.

Milaka euskaltzalek parte hartu zuten larunbateko mobilizazioan, "euskaraz bizitzeko behar den dena" aldarrikatzeko. Hiru zutabetan banatuta abiatu zen martxa, eta Gaztelu plazan egin zuten amaiera

Autobusa antolatu zen eskualdetik larunbateko mobilizaziora joateko, eta **pankarta propioa eraman zuten bertan joan ziren bizilagunek**

ekitaldia. Bertan, erronka kolektibo bat jarri zuten mahai gainean: euskarak 300.000 hiztun irabaztea 10 urtean, "egungo euskalduntze erritmoa bikoiztuz".

"Euskarak etorkizuna izango badu, datozen hamarkadetan hizkuntza bizi eta nor nahiko izaten segituko badu, jauzi bat ezinbestekoa da hizkuntza-politikan. Paradigma aldaketa bat. Minorientzako hizkuntza-politikak atzean utzi, eta ezagutza orokortzea eta normal erabiltzeko egiazko baldintzak ekarriko dituzten hizkuntza-politika anbizioitsu eta ausartak behar dira", aldarrikatu zuen Idurre Eskizabelek, Kontseiluko idazkari nagusiak.

Aiara

Aiarako Udalak 2,8 milioi euroko aurrekontua onartu berri du

EH Bilduren eta Aiara Batuzen bozekin egin dute aurrera. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiarako Udalak argi berdea eman die aurtengo aurrekontuei eta behin-behineko onarpena bozkatu dute udalbatzan, EH Bildu eta Aiara Batuz taldeen babesarekin. Udal gobernu taldeak nabarmendu du berrikuntzak daudela 2026ko proiektuan, menditik zura ateratzeko zubi mugikorra erosteko gorde diren 15.000 euroak, adibidez.

Halaber, lehen sektorea dinamizatzeke Lurretik Bat programan sakontzeko 10.000 euro erresebatu ditu tokiko erakundeak, Lurkoik azken urtean egindako azterlanaren ondoriozko tailerrak eta prestakuntzak gauzatzeko. Beste 12.000 euro bideratu dituzte udalerrian abereentzako osasun-plan bat abian jartzeko.

Horrez gain, aurrekontu par-

te-hartzaileak egiteko prozesuaren ondorioz, beste 20.000 euro gorde dituzte Luiaondoko pista gorria hobetzeko.

Gainera, guraso-elkartearentzako dirulaguntza handitu dute talde psikopedagogikoaren lana ordaintzeko, eta lurralde orekari begira, iaz administrazio batzarrei zuzendutako finantzaketarako eta zerbitzuetarako diru-partiden igoera mantendu da, 147.000 euro orotara.

EAJ oso desados

Udal oposizioko talde nagusia, bestalde, oso kritikoa izan da onartu diren aurrekontuekin eta anbizio eta planifikazio falta egotzi die prentsa ohar baten bitartez.

EAJk adierazi du hainbat zuzenketa egin zituela udal-zerbitzuak indartzeko, administrazio-batzarrei babes emateko eta lehen sektoreak zein herritarrek egindako eskaera zehatzei erantzuteko, baina gaineratu du gehienak atzera bota dituela EH Bilduk.

Jeltzaleek administrazio batzarren diru kopurua 10.000 eurotan igozteko proposatu zuen, honako egitasmo hauek burutzeko: Gorbela mendilerroari lotutako osasun-planerako partida zabaltzea eta birformulaztea, Barrena kaleko (Las Vegas auzoa ere esaten zaio) hiri-berronartzea bultzatzeko hurbileko bulego bat sortzea edota Luiaondoko kalistenia parkean bankuak eta pape-rontziak jartzeko.

etxaurre
higiezin agentzia

- Pisuak
- Txaletak
- Lokalak
- Lursailak
- Balioespenak

BEZEROARENTZAKO ARRETA

☎ 94 672 85 50

Zumalakarregi 38, LAUDIO

25 urte zurekin

EL RACÓ DE FUSTER

- **PAELLAK** marisko, valentziar erara, arroz beltza, fideua...
- **OILASKO ERREAK**

- ETXEKO MARMELADAK
- PIPER POTOAK bertan erretakoak
- KM 0 PRODUKTUAK

EGIN ZURE ENKARGUA

📞 Mirian 618 836 139 📞 Juan Carlos 675 942 804
Aldaiturriaga industrialdea 17-18 pab., AMURRIO

Erreportajea

INTI RAYMI: SOLSTIZIOAK LOTUTAKO BI HERRI



Inti Raymia, eguzkiaren jaia, Andeetako herrietan sakon errotutako ospakizuna da. Ekuadorreko ospakizunik garrantzitsuenetakoa da, eta Urduñako komunitate ekuadortarrak festa erraldoia antolatu zuen iragan ekainaren 6an Gamako urmaelaren inguruan.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Solstizioak badu zerbait. Mugimendu astronomikoek belaualdiz belaualdi erakarri dute lurtarren arreta, eta mendez mende bide eman diote makina bat ohitura eta tradizioei. Berdin du planetako zein tokitan kokatu, eguzkiak ekuatorearekiko duen deklinazioak ziur zirrarara sortzen duela; deklinazioa, ekliptika, orbita eta bestelako kontzeptuak ezagutu edo ez.

Egun luzeak, egun laburrak... errituen iturburu dira urtean

birritan gertatzen diren solstizioak. Hala nola, San Joan gaua eta Eguberriak gure latitudeetan.

Inti Raymia

Andeetako herrietan Inti Raymi izena hartzen du udako edo neguko solstizioaren jaiak. Kitzua hizkuntzan “eguzkiaren jaia” esan nahi du. Sakon errotutako festa da, bereziki Ekuadorreko zenbait eskualdeetan.

Urduñako komunitate ekuadortarrak urteak daruma sorterriko tradizioa bizirik mantentzen. Ekaina iristen den aldiro festa erraldoia antolatzen

dute Gamako urmaelaren inguruan, eta aurten ere ez dute hutsik egin.

Richard Isama Quilamba urduñar gazteak hartu du bere gain aurtengo Inti Raymi ospakizuna antolatzearen ardura. Mila lagun inguru batzen ditu ospakizunak. Txosna, dantza erakustaldiak, kirol ekitaldiak, kontzertuak... zer eginik ez zaio falta Isamari. Lan batetik bestera dabilela mintzatu gara berekin, festaren nondik norakoak ezagutzeko. Honela definitu du Inti Raymiaren funtsa: “Gure herrialdeko [Ekuadorreko] tradizioa da Inti Raimya, eguzkia-

ren jaia. Pachamamri, ama-lurrari, esker ona emateko jaia da. Uzta onak, abundantzia eta urte oparoa eskatzen dizkiogu”.

Gamako urmaela

Hamaika txokotatik etorritako ehunka lagun elkartu dira aurten ere Gamako urmaelaren bueltan. Hamakak, eguzkitakoak, hozkailu eramangarriak... kanpamentu inprobisatua erraldoia atondu dute txosnaren eta boleibol zelaien inguruan. Familiak, lagun-taldeak, herrikideak... denak batu dira eguna komunitatean igarotzeko asmoz.

Urduñako komunitate ekuadortarra soilik ez, aldirietatik etorritako makina bat lagun batu dira ere: Bilbo, Iruña, Gasteiz... Urmaelera bertaratzeko bide luzeagoa egin dutenak ere badaude. “Frantziatik, Belgikatik, Asturiasetik, Madriletik... etorri da jendea. Ecuavoley-an jokatzeko edota dantzetan aritzeko. Ohikoan opor egunak hartzen dituguekainean, eta jaialdi desberdinetara bidaiatzen dugu. Kanpotik Urduñara etorri diren modu berean guk ere joko dugu diasporak antolatutako beste Inti Raimy batera. Esaterako, Valentziara askotan joaten gara, sona

Erreportajea

handia duen ospakizuna antolatzen dute bertan”, azaldu digu Isamak. Komunitatean sustraiak goratu eta sorterriko tradizioak bizirik mantentzea helburu, kirola eta dantza uztartu dituzte gaueko ordu txikiak arte. Txosnan, aldiz, Ekuadorreko jakiak eta edariak eskaini dituzte: Arto errea, ají saltsa, zuku morea, haragi errea... “Egun batez Ekuadorren egotea bezalakoa da” diosku pozik urduñar gazteak: “Gure sustraiak oroitzeko baliatzen dugu jaia. Hemen elkartzen garenok gure herrialdetik emigratu behar izan dugu, beste bizitza baten bila. Herrialde berri batean aurkitzen da gure burua, beste kultura batean murgildurik. Gure lurra eta atzean utzi dugun guztia oroitu nahi dugu Inti Raymian”.

Urduñar komunitatea

Urduñako herritar orori zabaldutako ospakizuna dela azpima-

“Egun batez Ekuadorren egotea bezalakoa da”

rratu du Isamak. Asko dira hiritik urmaelera bidea egin duten urduñarrak, askok kuriositateagatik, beste askok lagun bat edo beste dutelako bertako saltsan sartua. Urduñako alkatea bera txosnan aritu da ere tragoak zerbitzatzeko, Isamaren txikitako lagun mina da eta.

Urduñako ekuadortar gehienak Otavalo ingurukoak dira. Ibarra eskualdeko hiria da Otavalo, kitxua komunitate handia bizi da bertan, eta bertako kaleetan oso bizirik daude herri indigenaren hizkuntza eta ohiturak.

Isamaren gurasoak Otavaloetik etorri ziren Urduñara. Isama bost urte zituela iritzi zen hirira, urduñartzat du burua baina ez ditu bere sustraiak ahaztu. Kontrara, bere alabari transmititu dizkio sorterriko tradizioak: “Komunitate indartsua da gurea eta asko laguntzen diogu elkarri, ekarpena egin nahi dugu Urduñan”.



Kultura

“NERABEZARO
GUZTIAK EZ DIRA
ZORIONTSUAK,
NIREA EZ DA
IZAN”



IRAIA MARTIN GOTI (Amurrio, 2008) 'SOBREVIVIR A SER ADOLESCENTE' LIBURUA IDATZI DU. BIZITAKO ESPERIENTZIA LATZETATIK ATERA DU ORRIALDEETAN JASO DUEN EDUKIA, BAINA MODU POSITIBOAN BALIATU NAHI IZAN DU.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Duela gutxi argitaratu duzu *Sobrevivir a ser adolescente*, baina 18 urte baino ez duzu.

Bai, ni nolabait etapa hau bukatzen ari naiz, baina oso gogorra izan da. Nire burua oso azkar doa eta pentsamendu gehiegi nituen. Psikiatriako atalean egon naiz ospitalean bi aldiz. Duela bi urte lehenengo aldiz eta duela urtebete bigarrenez. Azken horretan konturatu nintzen jende askori lagundu ahal niola. Ospitalean oharrak hartu nituen eta biltzen joan nintzen. Horiei liburu forma eman nien.

Prozesu terapeutiko baten barruan hasi nuen ariketa. Asko kostatzen zait nire sentimenduak adieraztea, ondorioz, eskatu zidaten idazteko. Egutero idatzi nuen eta hori berriro irakurri eta berri-idatzi nuen.

Orduan ez da eleberri bat, saiera baizik.

Nire helburua da besteak nire bizitzan islatzea. Uste dut nerabezaroa aro oso aldakorra dela. Batzuentzat garai alaiak da eta beste batzuentzat, aldiz, zailagoa. Informatiboa da liburua-

Azaldu nahi duzu zergatik izan zenituen bi egonaldi psikiatriko?

Oso pertsona perfektionista naiz eta nire buruarekin oso exijentea. Horrek eraman nau anorexia gartzera. Horren ondorioz nire bihotza gelditu zen eta ospitalera eraman ninduten. Kardiologiatik psikiatrara bidali ninduten eta han egon nintzen anorexiak depresioa eta antsietatea eta bestelako sintomak ere eragiten dituelako.

Garai hori gaindituzat jotzen duzu eta eskarmentua partekatu nahi duzu edo prozesu terapeutikoaren barruan beste urrats bat da?

Uste dut gainditu dudala, baina ez guztiz. Uste dut nirekin egongo dela bizitza osoa. Gaixotasun gogorra da eta soilik ikasi dut harekin bizitzen.

Zer topatuko du irakurleak liburuan?

Denetarik. Nerabezaroan bizitzen duzun guztia agertzen da. Nire helburu nagusia da gazteak islatzea. Bakoitza ezberdina da eta ez dago nerabezaro bakarra. Guztiontzat ez da etaparik zoriontsuena. Niretzat ez da izan eta psikologoari aipatu nion. Berak erantzun zidan gehienetan ez dela horren polita, nerabeen pentsamenduak hankaz gora daude hormonon eraginez.

Nola sortu zaizu hau azalertzeko beharra?

Ezagutzen dudan jende askok esan dit oso ondo etorri zaiela irakurtzea eta atal askorekin identifikatuak sentitu direla. Horrek harrotasuna sortzen dit eta pozik nago besteak laguntzeagatik.

Oso gaztea zara eta bizipen oso intimoak partekatu dituzu. Nola erabaki duzu zer kontatu eta zer ez?

Oso zaila izan da. Idazten ari nintzen bitartean ez nuen pentsatzen argitaratuko nuela. Behin argitaratu denetik ez dut berriro irakurri. Oraindik ez naiz gai, tar-te bat igaro beharko da. Nire lagunek eta inguruneak esan didatena zaila da eta kontu intimoak daude.

“Argitaratu denetik ez dut berriro irakurri. Oraindik ez naiz gai”

Ez zara gai sentitzen orain irakurtzeko, noiz egingo duzu?

Ez nago prest. Ez dakit, agian ez zait gustatzen. Eguna helduko da, baina oraindik ez.

Baina argitaratu baino lehen hamaika aldiz irakurri behar izan duzu, zuzendu... Nolakoa izan da prozesua?

Hilabete batean idatzi nuen, baina geroztik egutero berregiten nuen. Ez zara pertsona bera idazten duzunean edo bi edo lau hilabetera. Nire bizitza izugarri aldatu da urte bakarrean.

Egon al da atalen bat bereziki zaila zuzentzeko ordutan?

Lehenengo atala da nire istorioa. Nire bizipenak eta ospitalean bizi izandakoa, botikak... Hori izan da gogorra.

Aurkezpenak egingo dituzu?

Bai, asmoa da aurkezpen bat egitea Amurrio eta jendea etortzea. Horrez gain, Amurrio Bai Bada liburudendan eta San Joseko estankotan egingo da salgai.

Zuk kudeatu duzu liburua?

Nik bakarrik nekien liburua nuela esku artean Gabonak heldu arte. Gero serio jarri zen kontua, banuen dena pentsatuta eta gurasoei eta senideei esan nien. Hortik aurrera argitartzea bilatzen lagundu naute. Argitartetxeak esan zidan ondo zegoela eta aurrera egin nuen.

Poesia liburua kaleratu du Hector Lopez Blancok

Testua
Aitor Aspuru Saez

Hector Lopez Blanco urduñarrak olerki liburua idatzi du eta horren aurkezpena egin du ekainaren 16an Alondegian. Poetak azaldu du *Memorias de oro y ceniza* liburuko testuek pertsona nagusi baten larruan jartzen dutela irakurlea: "Kasu honetan senarra galdu duen eta hiltorian dagoen emakumearen azken orduei buruzkoa da liburua".

Egileak aipatu dio Aiaraldea Komunikabideari beti izan

'Memorias de oro y ceniza' da olerki bildumaren izena, eta Alondegian aurkeztu zuen ekainaren 16an

duen ametsa bete duela liburua argitaratzean: "Txiki-txikitatik hasi nintzen irakurtzen, eta laster hasi nintzen poesian".

Edonola ere, urte luzez alboratu zuen lana argitaratzea, harik eta une egokia topatu zuen arte: "Azken urteetan, bizitzako kasualitateengatik, laguntzen nuen jendearen bitartez, nire ametsa betetzera itzultzea erabaki nuen".

Bere erreferenteak Federico García Lorca eta Miguel Hernández dira, baina aitortu du poesia garaikidea ere ezagutu beharra dagoela.

Ateak zabaldu ditu Mundo Cero Etxeak, inpaktu sozialeko ikus-entzunezkoei bide ematea helburu



La Antiguako pasealekuan dago kokatuta espazioa. **Urduñako Udala**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Urrats berria eman du Urduñak ikus-entzunezkoen alorrean. Mundo Cero ekoiztetxeak espazio fisikoa atondu du La Antigua etorbideko eraikin batean: ekainaren 5ean Cero Etxea. Iragan ostiralean aurkeztu zuten proiektua, eta "ikus-entzunezkoen prestakuntza, sorkuntza eta postproduzioari eskainitako gune berri" gisa definitu zuten. Aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Ibon Cormenzana Munco Cero ekoiztetzeko burua eta Ainara Basurko Bizkaiko Ekonomia Sustapeneko foru diputatua. Proiektu berriaren helburua "sektore zinematografikoa garatzen laguntzea, talentua sustatzea eta landa ingurunean aukera ekonomiko eta enplegu berriak sortzea" dela aurreratu zuten biek ala biek.

"Inpaktu sozialeko ekoiztetxe" gisa definitzen du bere burua Mundo Cero, eta filosofia horri ekarpena egitera dator Urduñan abian jarritako zentroa. "Mundo Cero Etxea tokiko eta nazioarteko talentua sustatzeko bostazioarekin sortu da, hezkuntza jarduerak, sormen egoitzak eta ikus-entzunezko proiektuak babestu eta laguntzeko", azaldu zuten aurkezpenean.

Mundo Cero Etxea

Honezkero abian dago Mundo Cero Etxeko formakuntza-jar-

duera: "Datozen asteetan, zentroak profesional ezagunek eskaintako tailer berriak hartuko ditu, hala nola Pablo Berger zine-magileak eta AA eta storytelling-ean aditua den Victor Gay Zargoza, eta, laster, funtsezko arloetako prestakuntzak gehituko zaizkie ere: soinua, Fabiola Ordoyoren eskutik, eta muntaketa, Guillermo de la Calekin, besteak beste".

Urduñara talentua erakartzeko baliatu nahi dute proiektua, "gizartean eragina izango duen ikus-entzunezkoaren inguruko ikaskuntza, sorkuntza eta truke ingurune bat sortuz".

Ikus-entzunezkoen Hub-a

Bizkaiko Foru Aldundiak iragan martxoan iragarri zuen Bilbao Bizkaia ikus-entzunezko huba garatzeko 4,6 milioi euroko inbertsioa. Mariaren Lagundiko ikastetxe zaharreko eraikinak eta lursailak egokituko dituzte sektorearen garapena bultzatzeko, 18.000 metro koadroko eraikina eta 10.000 metro koadroko lursaila orotara.

Ekosistema horretan ekarpena egitera dator Mundo Cero Etxea. "Urduñarentzat proiektu hau aukera bat da udalerriko jarduera ekonomikoa eta kulturala dinamizatzeko, gure hiria sektore estrategikoko bati lotuz eta herritarrentzat aukera berriak sortuz", adierazi zuen Iker Santocildes alkateak iragan ostiraleko aurkezpenean.

BASA ZIKLOAREN AMAIERA ekainak 25 19:00 eguena

MIKEL AYLLON
«Kasete»
SAIO IREKIA

EUSKARA
NATURA
GORPUTZA

BERTSO SAIOA
MIREN AMURIZA UXUE ALBERDI
GAI JARTZAILEA: IZAR MENDIGUREN

LABORAL CERO
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTUR FAKTORIA
EUSKO JAURLARITZA

Kirola

“EZ DAKIT ZER DEN,
EZ DAKIT EGURRA
DEN, EZPALA DEN,
KOLPEA BERA...
**ATRAPATU EGITEN
ZAITU”**



EKIÑE LOPEZ OLABARRIAK (Areta, 2004) DUELA URTEBETE HARTU ZUEN AIZKORA AURRENEKOZ. GEROZTIK IBILBIDE LABUR BEZAIN OPAROA EGIN DU, PLAZAZ PLAZA ETA TXAPELKETAZ TXAPELKETA.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Aizkoran denbora gutxi darazazun arren, bide oparoa egin duzu orain arte. Nola murgildu zinen mundu honetan?

Betidanik izan dut herri kirolekiko konexio bat, txikitatik gustatu izan zaizkit, baina ez nuen inoiz horretan hasteko pausoa ematen. Gainera, gaur egun zaila da herri kirol talde bat topatzea. Herri kirolekiko konexio hori orokorra bada ere, beti nagusitu izan da aizkoran aritzeko gogoia.

Osaba Serapiori aipatu nion aizkoran aritzeko asmoa nuela eta honek Fernando Velez de Mendizabalekin jarri ninduen harremanetan iazko Amurrioko ialetan. Urte luzez herri kirolean aritutakoa da Fernando, Betagarri Herri Kirol taldean. Berak eskaini zizkidan lehenengo aizkorak eta etxean hasi nintzen praktikatzan, iragan urteko irailean.

Nahiko modu prekarioan hasi nintzen, baina handik gutxira Fernandok Lopidanan duen pabiloi handi batera lekualdatu nituen entrenamenduak. Ingudea, trontza... herri kirolean aritzeko materiala du Fernandok bertan; espazio aproposagoa da entrenatzeko.

Ramiro Llanosekin hasi nintzen entrenatzen orduan. Barrio herrikoa da bera eta eskarmentu handia du aizkoran.

Probatua zenuen aurretik aizkora?

Inoiz ez. Ikusi bai, beti izan dudalako zaletasun handia, baina probatu ez. Beste herri kirol batzuk praktikatuak nituen institutu garaian; txingak, lokotxak...

Nolakoa izan zen aurreneko denbor batera igotzea?

Gogorra, oso gogorra. Aipatu bezala iazko irailean izan zen hori. Kriston beroa egiten zuen, egurra oso gogor zegoen, oso lehor... Materiala ere ez zen aproposena, aizkorak ez ziren nire neurrikoak. Baina ikasi ahala esperientzia izugarria izan da.

Zer da engantxatu zaituena?

Zaila da azaltzen. Badauka xarma berezi bat, eta behin egurra moztan ikasten duzula ulertzen zoaz hori. Ez dakit zer den. Ez dakit egurra den, ezpala den... kolpea bera. Atrapatu egiten zaitu.

Aritu zara erakusketetan, txapelketetan... Aizkolari onenen aurka lehiatu zara ere. Nolakoa izan da orain arte egindako bidea?
Zertzena Herri Kirol taldeak

antolatutako ligan hasi nintzen txapelketetan. Lehenengo saioa Agurainen izan zen, apirilean. Pentsa, aizkora aurreneko probatu eta hilabete gutxira. Binakako aizkora txapelketa antolatu du aurten Zertzenak aurreneko eta bertan izan naiz. Herrialdeka banatu gintuzten, emakume gutxi gabiltza plazetan eta niri eskaini zidaten Oihana Fernandez de Barrenarekin batera bikotea osatzeko aukera.

Esperientzia izugarria izan da. Teknika asko hobetzeaz gain aukera izan dut Oihana eta bere ingurua gertutik ezagutzeko. Hernanira joan gara entrenatzera maiz, eta horrek ere ate askoz abaldu dizkiugu.

“Oso azkar aterata nintzen plazara, oraindik gauza asko nituen ikasteko”

Akaso txapelketari esker erreferente zenituenak gertutik ezagutzeko aukera izan duzu, ezta?

Bai. Niretzat Oihana izan da erreferente nagusia, arabarra delako eta nekazari lanetan dabilen emakumea delako. Oihanak gainera beti egin du emakumeak plazara ateratzearen aldeko defentsa. Berekin bikotea osatzea oso berezia izan da.

Oihanaz gain, Maika Ariztegi ere izan dut erreferente, herri kirolen munduan bidea ireki duen beste emakume bat. Gainera, haren aurka aritzeko aukera izan dugu txapelketan. Hamalau segundoko aldegatik ez ginen finalera sailkatu. Askok daukat hobetzeko baina esperientzia oso positiboa izan da.

Datorren denboraldiari begira, zeintzuk dira zure asmoak? Baduzu erronka berririk?

Oso gogotsu nago. Oso azkar aterata nintzen plazara, oraindik gauza asko nituen ikasteko. Gainera plazan zaudela orotariko komentarioak entzun behar dituzu. Oraindik denbora asko daukat ikasteko. Batzuek diote hiru urteko prozesua dela, Gabriel Saralegik sei urtekoa dela dio eta beste batzuek

Kirola

diote ez dela inoiz ikasten. Ikasteaz eta prozesuaz gozatu nahi dut. Ditudan plaza guztiei baietz esatea da nire asmoa; entrenamenduetan bezain beste ikasten da plazetan ere.

Emakumeak falta dira plazetan.

Bai. Gutxi gara. Plaza askotatik deitzen gaituzte horregatik hain zuzen ere. Euskal Herrian gertatzen dena da, gainera, bi profileko emakumeak gabiltzala aizkoran: maila oso altuko emakumeak eta hasi berriak garenak. Lehenengo horien kontra aritzea zaila izaten da.

Publikoa, oro har, nahiko zahar-akitua dago. Oso publiko exigientea da, eta lehen esan bezala asko dira entzun beharreko komentarioak. Baina egia da nik topatu dudan ingurunea hamarrekoa izan dela, beti laguntzeko prest dauden pertsona zoragarriak.

Azpiegitura handia behar da aizkoran aritzeko? Nola susten- gutzen da hori guztia?

Hogei minutuko entrenamendu edo saio bat egiteko bi orduko prestaketa lana egin behar duzu: enborrak lortu, zurutu, moztu,

gapiriotan jarri... Gero aizkorak behar dituzu ere, aizkorak zorrotuko dituen norbait... Plazara aizkolaria bakarrik ateratzen da, baina aizkolaria bakoitzaren atzean kriston lana eta kriston taldea dago. Haiek gabe ezinezkoa litzake aurrera egitea. Askotan gertatzen da aizkolariek erretiroa hartu behar dutela inguruan talderik ez duelako. Aipatu gabe doa ekonomikoki ere gastu handia dakarrela honek.

Zuk osaba Serapioren laguntza izan duzu hasiera hasieratik, besteak beste.

Izan ditut kriston laguntzaileak. Hasteko bizi naizen tokia; ez da pisu bat eta entrenatzeko tokiaz gain egurrari irtenbidea emateko aukera eskaintzen dit ere. Osabak plaza guztietara lagundu nau, Ramiro entrenatzailea izateaz gain enborrak prestatzen dizkit, Fernandok entrenatzeko tokia eskaini dit... Oso eskertua nago, bidea asko erraztu didate.

Zer behar da aizkoran aritzeko?

Oso kirol fisikoa da. Indarra behar da kolpe onak emateko. Nik neuk zazpi kilo irabazi ditut aizkoran

hasi nintzenetik. Arnasketa egokia mantentzea ere funtsezkoa da, denbora behar da teknika hori garatzeko.

Erramintarena ere beste mundu bat da. Aizkora onenaren eztabaida etengabea da: australiarrak, arkaia... Enborra mozteko lana bi fasetan banatzen da. Lehena ezpala ateratzea da, eta horretarako kolpe luze eta indartsuak jotzen ditugu. Bigarrena enborra erdibitzea da, eta hor kolpe azkarrekin konbinatutako punteria ezinbestekoa da.

Zer esango zenioke herri kirol- letara hurbildu nahi duen gazte bati?

Animatu dadila. Probatzeagatik ez da ezer gertatzen. Aizkorara hurbildu nahi duen edonork badu gurekin harremanetan jartzeko aukera. Behin probatuta ziur ez dutela utzi nahiko.

Azken urteotan geroz eta gehiago dira herri kirolari lotutako telebista saioak, txapelketa formatu berriak... Haize freskoa dator bertatik?

Bai, horrek guztiak herri kirolen

“Plazara aizkolaria bakarrik ateratzen da, baina aizkolaria bakoitzaren atzean kriston lana eta kriston taldea dago. Haiek gabe ezinezkoa litzake aurrera egitea”

profesionalizazioa dakar nolabait eta hori positiboa da. Txapelketa konkretu batzuetatik haratago aukera ematen dute lehiaketa berrietarako prestatzeko ere. Harri Herri izan daiteke horren adibide argia. Zertzena taldearen txapelketa izan dira bertatik igarotakoak, eta oso maila ona eman dute gainera.

Noraino nahiko zenuke iritsi zuzk?

Ba ez dakit. Nahiko nuke Nerea eta Oihana dauden mailara iristea. Egundoko segurtasuna transmititzen dute plazan eta nik ere maila horretan egon nahi dut, baina ez dut presarik.

Jendea asko harritu da aizkoran aritzen zinela jakiterakoan?

Bai eta ez. Denbora asko neraman honekin matraka ematen; batek baino gehiagok pentsatuko zuen, banuela garaia pausoa emateko (barreak).

Egia da behin txapelketa eta erakusketetako argazkiak erakutsita askoz gehiago direla harritzen direnak. Irudi potentea da aizkolaria azken finean.



Kirola

OZTOPO LASTERKETA

Mikel Jon Lara Fernandez 36. sailkatu da Europako OCR Txapelketan



Mikel Jon Lara Fernandez Irunen jokatu du txapelketan. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Mikel Jon Lara Fernandez 36. postuan sailkatu zen maiatzaren 30ean Irunen, Europako OCR (Obstacle Course Races) Txapelketan. Kirola indar, sendotasun eta erresistentzia handia exijitzen die parte-hartzaileei, oztopo ugari gainditu behar baitituzte. Amurriorentzat erronka handia izan zen, kontinenteko atleta onenekin neurtu baitzituen indarrak: "Lasterketa buru hotzez planteatu nuen, indarrak azken zatirako gordez; izan ere, bertan 10 oztopoko multzo bat genuen, besurreak sutan uzten zituena". Oro har, pozik amaitu zuen, sailkapenean sartu baitzen, baina uste zuen Trailaren partean hobeto egin ahal zuela. Hurrengo urtean espero du Estonian egotea txapelketan eta orduan gehiago arriskatzen saiatuko da.

Momentuz, han eta Munduko Txapelketan egoteko Espainiako Liga irabazi beharko du eta gaur gaurkoz lehen sailkatua da eta ia irabazlea izan zen.

Mikel Jon Lara Fernandezek aitortu du kirola ezagutu zuela une kritikoan bere bizitzan, depresioa pairatzen ari baitzen. OCR lasterketa batean parte hartu eta gero bere harremana burua eta gorputzarekin hobetzen joan zen eta emaitza onak ere eskuratu zituen. Gauzak horrela, OCR Araba taldeak fitxatu zuen eta ia Logroñon Espainiako Txapelketako onena izan zen AG Elite kategorian.

Israelen parte hartzea

Irungo hitzorduak hautsak harrotu zituen egun batzuk lehenago, Israelgo Taldeak parte hartzeko asmoa baitzuen. Boikot kanpainaren ondorioz taldea kanporatua izan zen, nahiz eta atleta israeldar asko bere kabuz bertaratu ziren. Mikel Jon Lara Fernandezek azaldu du kirolariak horren jakitun izan zirela: "Albiste asko iritsi zitzaizkigun, eta lehiaketa arriskuan egon zitekeela esaten zen; baina azkenean Israel taldekako probatik kanporatu zuten, eta ez zen polemika gehiagorik izan".

FUTBOLA

Naia Landaluzek 2028ra arte luzatu du kontratua Athleticekin



Naia Landaluze eta Jon Uriarte kontratu berria sinatu berritan. Athletic Club

Testua
Maider Ramirez Martin

Lau dira dagoeneko Naia Landaluzek Athleticekin jokatu dituen denboraldiak, eta beste bi urtez behintzat jantziko du elastiko zuri-gorria: 2028ra arteko kontratua sinatu du atzelariak maiatzean.

Zehazki 104 partida eta 2.000 minutu baino gehiago egin ditu orozkoarrak Athleticekin zelaian, FLigako jardunalditan, Kopan eta Superkopan. 2022-2023 denboralditik aurrera hasi zen minutu gehiago izaten, eta erregularitasun handiko futbolari bihurtu da gaur gaurkoz. Denboraldi ba-

Ehun partida baino gehiago jokatu ditu dagoeneko orozkoarrak klubarekin, eta beste bi denboraldiz egongo da bertan

koitzean 30 partida inguru jokatu ditu. Pozik azaldu da Landaluze Jon Uriarte Athletic Clubeko presidentearekin eta Xabier Arrieta Emakumezkoen Futboleko zuzendariarekin batera kontratua sinatu ostean: "Niretzat ohore bat da. Athletic nire bizitza da, txikitatik koloreak sentitzen irakasten dizute eta ilusio berezia egiten dit nire kontratua berritzeak. Zaila da iristea, baina are gehiago irautea, eta egunerokotasunaz gozatuz, nigan jartzen dut arreta, eta baita taldeari egin ahal didian ekarpenean ere. Balio horiek erakutsi dizkirate eta taldean transmititzen jarraitu nahi dut".



**ETORKIZUNEAN
LANEAN**

Ibilbidea zure esku

www.ehu.eus/ikasi

"EHUn Formula Student gidatu nuen. Gaur eraldaketa proiektuak diseinatzen ditut automobilgintzan"

Nerea Marrodán,
Ingeniaria Industria Teknologian

Babestutako edukia

KAIXO, EUS NAIZ. EUSEBIO.



Eskuratu
●EUS domeinua
9 EUROAN.

EUSEBIO
PUNTO
●EUS

Erregistratzen laguntzeko,
eskatu hitzordua:
EUSEBIO.EUS



Herriko plaza



BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera edo 688 84 81 52 WhatsApp edo Telegram zenbakira. Irailean argitaratuko dugu hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak


SUDOKU OSO ZAILA

		1			8		3
			9				
			4		1	7	
	6		2		8		
		8		5		2	
	9			4		1	7
		5	1		3		9
8							1
4		6					


SUDOKU ERRAZA

	9		8	4		6	5	3
	4	2	6		5		9	7
6		5		7				
				5		7	3	
	7				3	5	6	2
3		4				8		
	8	9		6	7		4	5
4	2	7		9	1	3	8	
5	6				4		7	

ANDERSEN MATEA



GREKO MATEA




Zuriek jokatzeko dute eta mate egiten dute.

Amurrioko Xake Taldea

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku eta xake partiden soluzioak webgunean ikusgai: www.aiaraldea.eus/denborapasak

Zozketa



Areta Trail lasterketarako dortsala zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak



Parte hartu!

Uztailaren 25ean izango da Areta Trail lasterketaren VIII. edizioa eta Aiaraldea Komunikabideak dortsala zozkatuko du, jaia eta kirola uztartzeko Zozketaren data: ekainak 26, 14:00etan

Herriko plaza

Boluntarioen Txokoa

Dozenaka inurriren lan ikusezin eta isilari esker egiten du aurrera Komunikabideak. Badira hamabostekariak euren auzoan banatzen dutenak. Badira argazkiak bidali eta albisteen berri ematen dutenak. Guztiak dira ezinbestekoak. Haiei guztiei esker ona eta ahotsa ematea besterik ez dugu.



UNAI LLANO
KOLABORATZAILEA

“KONTATZEA MEREZI DUTEN GAUZA ASKO GERTATZEN DIRA HERRI TXIKIETAN”

Aiaraldea Komunikabideko kolaboratzailea zara zu. Zertan datza zure ekarpena?

Ahal dudan horretan laguntzen saiatzen naiz beti. Komunikabideko kideek askotan eskatu dizkidate nire inguruan gertatzen diren kontuen argazki eta bideoak, artikuluren bat ere idatzi izan dut noizbait... Tarte batez Aiaraaldea Hemen hamabostekariaren banatzailea izan nintzen ere. Aretatik banatzen nuen aldizkaria.

Noiz hasi zinen Aiaraaldea Komunikabidean ekarpena egiten?

Ez dakit zehazki noiz. Badakit ni boluntario gisa hasi nintzenez Aiaraaldea Komunikabidearen egoitza oraindik Nerbioi kaleko pisu batean zegoen garaian izan

zela. Garai hartan Aretako blog bat abiatu genuen, Aretako Kontseiluak sustatua. Aretako kontuen berri ematen genuen atari hartan: Kultur Etxeko ekintzak, Herriaren Pilota Klubaren jarduerak, Aretan egiten ziren obrak, bilerak...

Aiaraldea Komunikabideetik gonbita egin ziguten blegean idazten genituen kontuak komunikabideko webgunean jasotzeko. Horri esker aukera izan genuen Aretatik zabaltzen genuen informazio hori jende gehiagorengana iristeko.

Zer nolako ekarpena egiten die Aiaraaldea Komunikabideak eskualdeko herri txikiei?

Komunikabideari esker aditzera ematen da Aretak,

edo beste herri txiki batek, duen benetako eguneroko bizitza. Gauza asko gertatzen dira herri txikietan, baina askotan ez zaie behar besteko oihartzuna ematen.

Egiari zor, Laudioko auzo bat da Areta, baina herri sentimendu ikaragarria duena.

Kultur Etxearekin dugun arazoak zertxobait kaltetu du Aretako bizitza soziala. Herritarren topagunea eta erreferentziazko espazio estrategikoa zen Kultur Etxea. Edonola ere, Aretako herri nortasuna bizirik dagoen sentimendua da argi eta garbi, eta bizilagunen arteko harremanean dago sustraitua.

Kultur Etxearen inguruan makina bat egitasmo eta talde sortu dira, herria bizirik mantendu dutenak.

Bai, horrela da. Kultura Etxean sortu zen, esaterako, Areta Trail lasterketa antolatzekeo ideia. Modu informalean sortu zen erabat, auzokideon arteko giroan.. Bizilagunen arteko kontu xumea izan zen hasieran, eta denborarekin erreferentziazko lasterketa bilakatu da. Trail taldeak berak ere antzeko bidea egin zuen aurretik, Kultur Etxearen inguruko girotik sortu zen. Askok hazi da taldea urte hauetan guztietan, orain aldirietako jendea ere onartzen dugu klubean (barreak).

Aretak badu jendea erakartzeko gaitasuna. Hemen dagoen elkartasun giroak maitemindu egiten du. Duela gutxi Aretara etorri diren bizilagun berriak ere segituan murgiltzen dira hemengo bizitza sozialean. Giro hau ez duzu edozein tokitan topatzen.

Aretako Jai Batzordean zaude ere. Zer ekarpen egiten diote jaiak Aretari?

Aipatutakoa. Herri sentimendua indartzeko baliagarriak dira jaiak. Aretarak batzeko hitzordua. Lan handia dago jaien antolakuntzaren atzean, baina gustura egiten den lana da. Belaunaldi berriak lotu behar dira jai herrikoien antolakuntzara. Lan eginez ere disfrutatuta egiten da eta herria eraiki.

Herri sentimendua erabatekoa bada ere, komunikabideetik askotan ez dugu Areta eskualdeko gainerrako bederatzi udalerrien pare kokatu, muga geografiko eta administratiboak errespetatuz, Laudio barruan baizik.

Bazen garai bat non webgunean sartu eta zuzenean jo zenezakeen Aretako albisteetara. Webgune berriketaren batean ostean, misterioz, banaketa hori desagertu eta Laudioko atalera jo beharra zegoen Aretako albisteak irakurtzeko. Badago zer hobetu (barreak). Azpimarratzeko da gainera, zorionez edo zoritxarrez, onerako zein txarrerako, azken aldi askoz gehiago direla Aretari buruzko albisteak Laudio buruzkoak baino.

Argitaratzailea: Aiaraaldea Kooperatiba Elkarte **Tirada:** 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria **Lege gordailua:** BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraaldea.eus | agenda@aiaraaldea.eus | erredakzioa@aiaraaldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraaldea.eus | 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54 | 688 84 81 52
Webgunea: www.aiaraaldea.eus

ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraaldea Aldizkariak ez du beregain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI: Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Amets Meaza, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunatze Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



araba álava
foru aldundia diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Irakurketa gunea


GRUFALOA

Idazlea: Axel Scheffler

Itzulpena: Amets Sanchez Munain

Argitaletxea: Bruño

Sagu txiki eta azkar baten istorioa kontatzen digu. Arazoak ditu basoko animalia basatiekin. Baina bere irudimena eta azkartasuna erabiliko du basoan lasai eta pozik bizitzeko. Grufaloa ere ezagutuko du, basoko animaliarik beldurgarriena.



MUTILA IZATEA

Idazlea: Karim Ouaffi

Ilustratzailea: Mikankey

Itzulpena: Aiora Jaka Irizar

Argitaletxea: Tarttalo

Mutila izateko modu asko daude. Liburuak bost mutilen istorioa kontatzen du. Egoera berdinen aurrean jokatzeko modu ezberdinak mahaiganeratzten ditu



JOLASGUNEA

UDA GOZATU

Uda dator eta askotan honetaz askotan idatzi dugun arren, berriro gogora ekartzea ez dago gaizki. Urtaro guztietan jolas eta plan ezberdinak egin daitezke baina uda da naturaren espatnsio momenturik bziena eta beraz pertsonen hedapen momentua ere bada. Haurrak inoiz baino jolasera eta kanpora ateratzeko gogo handiena duten garaia da.

Eguraldiak ere normalean hainbat ekintza egiteko aukerak eskaintzen dizkigu.

Hori dela eta, hemen aurkezten dizkizuegu udan egoteko hamaika plan ezberdin:



- Naturako makilatxoekin hainbat eta hainbat eskulan egin daitezke, sormena landu eta gozatu.
- Harea eta urarekin eskulturak egin daitezke, haurrek orduak pasa ditzakete harearekin jolasten.
- Deskubritu lore eta landare ezberdinen usainak, koloreak, formak... herbario bat egin ahal duzue topatutako landare eta lore ezberdinekin.
- Sendabelarrekin ukenduak eta koloniak egin.
- Zuhaitzetera igo, jaitsi, deskubritu... zuhaitzek eskaintzen dizkiguten itzal eta jolasarekin gozatu.
- Herriko edozein naturagunean zuen Udarako etxola sekretua eraiki.
- Errekatoetara joan eta presak egin, deskubritu bertako animaliak, urak dituen hamaika ibilbideez gozatu.
- Tximeleta batekin batera dantzatu.
- Txibitekin bitxiak egin, hartu eta bata bestearen barruan sartuz pultserak eta belarritakoak egin.
- Txoritxoak entzun eta beraien ahotsa imitatzen saiatu.
- Eguzki izpiak harrapatzen saiatu, kristaletatik pasatu, koloreak eman, margotzen saiatu...

Uda oparoa da eta hamaika plan egin daitezke. Kanean eta naturaguneetan egoteko gunerik aproposena da.

Garrantzitsuena jolastea da, jolastu helduen artean, haurren artean... udarekin dantzatu eta gozatu. Elkarrekin denbora pasatu eta maitasuna adierazi.

UDA ERE JOLASEAN BIZI!

KO
KO-
RI
KO

KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Gora udaleku hezigarriak!

Herri askotan udalekuak ekainaren 22an hasiko dira, batzuk uztaila arte itxarongo dute. Baina denentzako atari atarian daude udalekuak. Prestaketa lan gogorretan gaude, formakuntzak jasotzen, eskaintzen, programak fintzen...

Udalekuen une gogor horietako batean etorri zaigu Eusko Jaurlaritzak udalekuak legezatzten dituen legea onartu duela. 1985etik ukitu gabe zuen legea, azkar batean onartu du. Onarpen honek urduritasuna besterik ez du eragin aisialdian dihardugun eragileengan. Urduritasunak, beldurrak.. ez dira oso lagun udalekua hasteko egunak besterik ez direnean falta.

Eusko Jaurlaritzak legea ez du erabili sektorea goraiatzeko. Pedagogia eraldatzaileetan, ezta ez eraldatzaileetan ere, ez du arretarik jarri. Behingoagatik legea aldatuko zuela, aisialdia hezitzailea balioan jartzeko erabili zitekeen.

Euskara eskariak ere egin ahalko zituen proiektuan. Hau da, euskara salbatzeko, gertatu behar den "pizkunde berrian" akuilu lana egin zezakeen eta EAEko udalekuak euskaldunak izateko bermeak jarri. Baina ez! Ausardiarik ere ez du gai honetan erakutsi.


Eusko Jaurlaritzak isunak, eta debekuak dira indartu dituen lege honetan, aisialdi eragileekin gutxi kontatuta gainera. Zirriborro baten ganean hitz egiteko deitu zituen eragile batzuk, ez zein behar genituen jakiteko. Haurrak babesteko, haurrekin lanean gauden eragileak indartu eta babestu behar dira, ez gurasoei beldurra sartzeko eta horren aurrean isunak eta debekuak ezartzea. Sareetatik ere Eusko Jaurlaritzak zabaldu duen mezua lotsagarria ikusten dut. Haurren segurtasuna indartu dutela esaten dute mezu horretan, noizbait kolokan egon al da? Aisialdi eragileek, mimoza eta lan handia eginez hartzen ditugu haurrak gurean, segurtasuna lehen lerroan izan dugu beti eta hau kolokan jartzea gure lanarekiko errespetu falta handia iruditzen zait.

Gainera, ez dugu soilik haurren segurtasunean fokoa jarri, baita haurren hazkuntzan dugun eredu, haurren beharretan, euskararen sustapenean, balio hezigarrietan, elkarlanean, kulturartekotasunean, inklusioan... Lan izugarria egiten dugun aisialdian dihardugun eragile gehienak eta hau da indartu beharko litzatekeena.

Guk beti bezala, profesionaltasunez eta ilusioz jarraituko dugu euskalduna eta eraldatzailea den eredu bat garatzen. Gure udalekuetan jarraituko dugu haurren beharrik identifikatu eta hauekin lanean. Gure udalekuetan jarraituko dugu mundu berri bat asmatzen, Euskal Herri euskaldun, hezkidetzaille eta inklusibo bat jorratzen. Eta hau Euskal Herriko hamaika eragileekin batera egingo dugu, asko garelako Euskal Herri hori hezkuntzatik eraikitzeko tenorea hartu dugunak

Gora udaleku hezitzaileak! Gora udaleku euskaldunak! Gora aisialdi eraldatzaile eta hezigarrian sinesten duten eragileak!

Zer da?



Ikusi al duzu halakorik inoiz?
Nola deitzen diozu zuk?
Hizki zopa honetan haren
izen batzuk aurkituko dituzu.
Honoko hauek:

- TRIKUA • KIRIKOLATZA
- XARROBIA • KIRIKIÑOIA
- SAGARROIA • KIRIKIOIA
- SAGARRERROIA



Sudokua



Bete itzazu sudoku honen hutsuneak TRIKUA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (T, R, I, K, U eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Badakit!



Begira zer egin duen trikuak azkonarra ikusi duenean: bere gorputzean bildu, eta arantzaz beteriko bola bihurtu. Zure ustez, zergatik egin du hori?




- Arriskua sentitu duenez, bere burua babesteko
- Nahi gabe egin du
- Harekin jolastu nahi izaten duelako
- Sabelean ferekak nahi dituelako
- Inoiz ez du halakorik egiten
- Azkonarraren kiratsak giharrak uzkurto dizkiolako

aldea dago!

Aurkitu bi trikuen artean dauden aldeak. 9 dira guztira.



Soluzioak



Kontra Mundutik Aiaraldera



CORIA ALI MUSA

JAIOTERRIA
AAIUN (1977)

BIDAIAREN XEDEA
OPORRAK BAKEAN PROGRAMAREKIN JOAN ZEN CADIZERA TXIKITAN. LAUDIORA LAN BILA HELDU ZEN 2017AN.

MENDEBALDEKO SAHARA



DESKRIBAPENA

Mendebaldeko Sahara Afrikako ipar-mendebaldean kokatutako lurraldea da. 1976. urtera arte Espainiako kolonia izan zen eta orain Marokok du okupatua. Urte horretan, Fronte Polisarioak Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zuen. Marokok 2.500 kilometroko harresia eraiki zuen herrialdea banatzeko eta geroztik, 200.000 saharar inguru errefuxiatuen kanpamentuetan bizi dira, Aljeriako Tinduf eskualdean.

AZALERA

266.000 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

567.000 biztanle.

HIZKUNTZAK

Arabiera da hizkuntza ofiziala. Sahararrek hassania dialektoa erabiltzen dute.

“EGOERA LARRIA DA MENDEBALDEKO SAHARAN, BAINA MEDIOEK EZ DUTE HORRETAZ HITZ EGITEN”

Laudion bizizara. Noiz eta nola heldu zinen?

Hogeita hamar urte baino gehiago daramatzat espainiar estatuan. Oporrak Bakean ekimenarekin Cadizera joan nintzen; haur errefuxiatu sahararren harriera programa da hori. Bertan familia batek hartu ninduen eta haiekin geratu ahal izan nintzen, gaixotasuna zela eta, arreta medikoa jaso ahal izateko. Hamabost urte nituen orduan, eta oso gogorra egin zitzaidan nire familia biologikoarekin ezin itzultzea. Baina beharrezkoa zen medikuarerera joan ahal izateko eta gero ikasi ahal izateko. Saharan aukera gutxi izango nituen.

Cadizen erizain-laguntzaile izateko ikasi nuen eta gero hain-

bat lekutan egon naiz lanean: Valentzian, Madrilan... Euskal Herrian senide eta lagun batzuk nituen eta haiek esan zidaten agian hemen erraz topa nezakeela lana. 2017an iritsi ginen alaba eta biok. San Roke adinekoren egoitzan egiten dut lan orain.

Harrera ona egin zizuten?

Ni Andaluziatik nator eta bertakoen izaera oso ezberdina da, oso irekiak dira. Hemen, orokorrean, ez didate ezer txarrik esan, baina auzokide batzuei, adibidez, kosta egiten zaie agurtzea.

Laudion saharar komunitate handia dago, asko babesten duzue elkar?

Bai, asko. Norbait berria bada-

tor, edo norbaitek laguntza behar badu, guztion artean ematen diogu babesa, bakoitzak ahal duenaren arabera. Etawasol elkar-ete ere ba dago, ni bertako kidea naiz. Saiatzen gara Saharako egun tradizionalak ospatzen, esaterako, maiatzaren 20an, askapen nazionalako borrokaren hasiera gogoratzen dugu, eta urriaren 12an batasun nazionalaren jaia ospatzen dugu. Martxoaren 8ko ekin-tzak ere antolatzen ditugu, besteak beste.

Oso presente daude emakume sahararrak aldarrikapenetan.

Bai, oso borrokalaria gara. Saharan, emakumeek ateratzen dituzte familiak aurrera, baina horrez gain, antolatzen dira eta ez

daude bigarren planoan. Ez daude gizonek zer egingo duten zain.

Topatu duzu antzekotasunik Euskal Herriaren eta Mendebaldeko Sahararen artean?

Hemen oso ondo bizi zarete, baina sahararren antzera zuen lurraren, independentziaren eta hizkuntzaren alde borrokatzen ari zarete. Horregatik sahararrek emigratzen dutenean hona etorri nahi dute, ondo etorriak izango direlako.

Nolakoa da saharar herriaren egoera?

Egoera larria da Mendebaldeko Saharan, baina medioek ez dute horretaz hitz egiten. Maroko dronekin erasotzen hasi dene-

tik sahararrek ez dute ezer egiterik, ez ihesbiderik.

Aurreko astean Marokoko armadak Fronte Polisarioko hiru kide erail zituen, Lehib Abdelaziz Fronte Polisarioko komandantea zen horietako bat, eta nire lehengusua beste bat. Mohamed Abdelaziz Mendebaldeko Saharako presidentea izandakoaren semea zen komandantea eta horregatik agertu da albistegietan, baina bestela, oso gutxi hitz egiten da bertan gertatzen ari denaz.

Laguntza humanitarioa dagoeneko ez da lehen bezala iristen, txikia da, eta kanpoan seniderik ez dutenek halamoduz biziraun behar dute. Nik zorionez nire familia lagundu dezaket hemen lanean egoteari esker.